

MYANMAR

Jade meategiak, agintari berriek
konpondu beharreko aspaldiko lotsa

 POLITIKA / joseangel.oria@gaur8.info

Jadea betidanik izan da oso preziatua Asiako ekialdean eta mineral horrek Myanmar agintari militarrek aberastu ditu azken hamarkadotan. Azaroan izan zen lur-jausi larriak (200 hildakotik gora eragin zituen) agerian utzi ditu negozio horrek eragindako makina bat arazo, hauteskundeak irabazi berri dituzten agintariak konpondu beharrekoak.

Myanmar agintari militarrek joan den astean amaitutzat eman zituzten Kachin estatuko jade meategi batean izandako lur-jausiak eragindako biktimak erreskatzeko lanak. 113 lagun-en gorpuak aterata zituzten ordurako, eta kalkulatu dute beste horrenbeste langile lurraren azpian galduta geratuko zirela.

Hpakanteko meategitik munduko jade haririk onenak ateratzen dituzte, oso baldintza txarretan ordea. Gaiaren kalitatea ikaragarria da, baina lan baldintzak esklabotzarekin lotzeko modukoak dira. Istripuak oso ohikoak dira, baita lur-jausiak ere. Ingurumena erabat suntsitzen du jarduera ekonomiko horrek, gaur egun egiten den moduan eginda bederen.

“Global New Light of Myanmar” egunkari ofizialak jakinarazi du lur-jausia gertatu zen momentuan langile asko lotan zeudela beren etxoletan. Langile gehienak herrialdeko bazter guztietatik iritsitakoak izaten dira: oso lanaldi luzeak eta soldata eskasak izaten dituzte.

Aung San Suu Kyiren LND Demokraziarako Liga Nazionalak eratuko du herrialdeko gobernu berria, azaroaren 8ko hauteskundeak irabazi ondoren. Dagoeneko jakinarazi dute meategietako egungo segurtasun arauak indartzeko asmoa dutela, horixe baita tankerako tragediak gertatzearen arrazoi nagusia.

Hala ere, begiraleek diote asko kostatuko zaiela jarduera ho-

rren inguruko araudia aldatzea, meategien jabeak (konpainia multinazional handiak) ez baitira aldaketen aldekoak. Alor ekonomiko horretan ez dago batere gardentasunik eta gaur egun, ikerlarien arabera, Hpakantetik ateratzen duten jade gehiena Txinara eramaten dute, legez kontra eta inolako zergarik ordaindu gabe, jakina.

Duela 5.000 urte baino gehiagotik erabiltzen da jadea Txinan tresnak eta apaingarriak egiteko material bezala. Denboran zehar jadearen benetako gurtza garatu zen bertan. Jadezko objektuek zorte ona erakartzen zuten kutun ospea ere lortu zuten, euskarazko Wikipedia entziklopediaren arabera. Jatorrian jadea beste edozein material baino gogor eta erresistenteagoa zen. Horregatik, tresnak egiteko ere erabiltzen zen.

Aung San Suu Kyi Bakearen Nobel sariduna Thein Sein presidentearekin elkartu zen joan den asteazkenean, goizean, eta Min Aung Hlaing Armadako buruarekin arratsaldean. Bozketak irabazi zituenetik militarrekin egindako lehenengo bilera izan zen. Ez dirudi jade meategien inguruko konturik aipatuko zutenik, gaia oso korapilatsua denez, agintari berriek beste baterako uztea nahiko zutelako.

BASOA BASAMORTU BIHURTUTA

Garai batean Hpakanten oihana zen nagusi, baina gaur egun landaririk gabeko mendixkak baino ez ditu ikusiko bisitariak.

«Leku hau gurea da», esan zion Daw Kareen herritarrek AFP agentziako kazetariari, istri-



pua gertatu baino egun batzuk lehenago. Gaur egun hondeamakinak ari dira lanean, bere herria eraikita dagoen leku mal-kartsuaren azpian. Lur-jausi ugari izan dituzte, eta horietako batzuetan etxebizitzak suntsitu izan dira. «Horiei aurre egiten saiatu izan gara, baina bai Polizia bai Armada konpainia horien aginduetara daude», esan zuten 44 urteko emakumeak.

Jarduera ekonomikoaren zenbakiek arrazoia ematen diote Kareeni. Global Witness gober-

«Hpakant lekuri baliotsuenen artean dago, oso lursail txiki bat nahikoa izan baitaiteke milaka milioi dolar irabazteko, baina lagun gutxi batzuk baino ez dira ari aberasten»

Global Witness gobernu kanpoko erakundeak nabarmendu du Myanmar jadearekin egiten dena «historia modernoko baliabide naturalen lapurretarik handiena izatera irits daitekeela»



nuz kanpoko erakundeak egin-dako kalkuluen arabera, Myanmar-ko jadearen inguruko industriak 27.500 milioi euroko negozioa eragiten du urtean: ofizialki deklaraturakoa baino hamar aldiz gehiago eta herrialdeko barne produktu gordina-ren erdia, gutxi gorabehera.

Global Winessek nabarmendu du Txinara esportaturako jadearen balioa 10.000 milioi eurotik gorakoa dela. Erakundeak eranstean du Myanmar-ko jadearekin egiten dena «historia modernoko baliabide naturalen lapurretatik handiena izatera iritsi daitekeela».

Herrialdeak galdu duena hobeto neurtu ahal izateko oso interesgarria da beste datu bat: jadearen industriak urte batean mugitzen duen dirutza Gobernu Militarrek osasun sisteman gas-tatzen duenaren 46 halako da.

Global Witness gobernu kanpoko erakundeak hamabi hila-bete egin zituen gaia ikertzen, bere txostena aurkeztu aurretik.

Goiko irudian, erreskate lanak lur-jausiak harrapatutako langileak bizirik atera nahian. Eskuineko argazkietan, goitik behera: jade meategia, lantegi bat, adituak jadearen kalitatea neurtzen eta mineral hori merkaturatzen den lekua.

AFP



Negozio horren inguruan sortu den sare konplexua militarren eliteak zuzentzen du. Than Shwe diktadorea bera ere nahasten du erakundeak elite horrekin.

Arautu gabeko beste meategiekin gertatu izan den moduan, Hpakanten ere milizia armatu ugari sortu dituzte, langileen lan baldintzak negargarriak dira eta legez kontrako drogak eta prostituzioa asko hedatu dira.

SEKULAKO NEGOZIOA

«Hpakant munduko lekuri ba-liotsuenen artean dago, oso lur-sail txiki bat nahikoa izan baitaiteke milaka milioi dolar irabazteko, baina lagun gutxi batzuk baino ez dira ari aberastan», esan zion Kachin estatuko herritar batek Global Witness erakundeko ikerlariari.

Britainia Handiko erakundeak egin dituen kalkuluen arabera, Myanmar-ko ateratzen den jade gehiena (%80a iritsi daiteke) legez kontra esportatzen da, normalean Txinara. Jadeak eragindako negozioaren %2 baino ez zen iritsi iaz Myanmar-ko altxorrera.

Azaroaren 8ko hauteskundeak egin aurretik inoiz baino hondeamakina gehiago ibili zen lanean Hpakanten. Herritar batzuek uste dute hori gertatu zela meategien jabeek agintari berriei gauzak aldatu egingo direla uste dutelako. Aung San Suu Kyi berak askotan adierazi du ustelkeriaren aurkako borroka eta ekonomiaren gardentasuna bere lehentasunen artean daudela.

Iluntzean hasten dira lanean meatzariak. «Zulo honetan aurrera egitea lortzen badut, noiz-bait aberastu egingo naiz», esan die kazetariei Thein Zaw Win 20 urteko gazteak. Beste estatu batetik etorri zen, jaioterrian aurrera ateratzeko aukerarik ez zegoelako. «Paradisuko harriak» lor dezake gaztearen bizitza hobetzea, horretarako garai batean oihan ziren lekuak basamortu bihurtzen baditu ere. «Hemen-dik 50 urtera, Txinako erakusketetara joan beharko dugu gure jadea ikustera», dio jadearekin lan egiten duen dendari batek.